



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA 2021ORDE0003  
COD.EXP.

**AZKOITIKO TXIKIZKAKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SUSTATZEKO MERKATARITZA BONUEN OINARRI ESPEZIFIKO ERREGULATZAILEAK**

Oinarri hauekin nahi dena da merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzuen eskaintzaileen jarduna sustatzen duen merkataritza bonu-sistema arautzea, Azkoitiko hiri-ingurunea dinamizatzeko, Azkoitiko txikizkako establezimenduetan eta ostalaritza indartuz aurrez aurreko kanalaren bitartez.

Helburu bezala du:

- a) Udalerriko merkataritzan eta ostalaritzan zuzeneko salmenta sustatzea, ondasunak eskuratzeko orduan herritarren ohitura aldaketak larriki eragiten dion sektore baten garapen ekonomikoa bultzatzeko. Azkenaldian, modu esponenzialean hazi den online kanalaren erabilerak kaltetua, batez ere, COVID-19aren garaian.
- b) Sektorea biziberritzea, herritarrak herrian kontsumitzera animatuz eta guztion artean Azkoitiko kaleak bizirik mantendu ahal izateko.
- c) Udalerriko merkataritza eta ostalaritza jarduera dinamizatzea, beste neurri batzuen osagarri eta indargarri gisa jardunez.
- d) Hiriaren kontzeptua hurbileko merkataritzari lotuta dago. Auzoko dendak, ostalari eta zerbitzu

**BASES ESPECIFICAS REGULADORAS DE BONOS DE COMERCIO PARA FOMENTAR EL COMERCIO MINORISTA Y LA HOSTELERÍA DE AZKOITIA**

Estas Bases pretenden regular el sistema de bonos que promueva la actividad del comercio, hostelería y los prestadores de servicios para dinamizar el entorno urbano de Azkoitia fortaleciendo el comercio por canal presencial en establecimientos minoristas y la hostelería del municipio de Azkoitia.

Tiene como finalidad:

- a) Incentivar la compra directa en el comercio y la hostelería del municipio para impulsar el desarrollo económico de un sector que se encuentra gravemente afectado por el cambio de hábitos de la ciudadanía a la hora de adquirir bienes, perjudicada por el uso del canal online que ha crecido de forma exponencial en los últimos tiempos, sobre todo en la época del COVID-19.
- b) Revitalizar el sector animando a la ciudadanía a consumir en el municipio y entre todos/as poder mantener vivas las calles de Azkoitia.
- c) Dinamizar la actividad comercial y hostelera en el municipio, actuando como complemento y refuerzo de otras medidas.
- d) El concepto de ciudad está ligado al comercio de proximidad. Las tiendas de barrio junto con la hostelería y los servicios llenan de vida y hacen



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

jarduerak bizitza ematen dute eta, ondorioz, kaleak biziagoak dira. Gainera, laguntzen dute Auzoak biziberritzen, eremu hutsak egotea galaraziz eta askotan elkargune gisa funtzionatzen dute. Beraz, gizarte-onurak ez dira soilik ekonomikoak; hiri-inguruneak biziberritzen ditu, gizarte-kohesioa areagotuz, enplegua sortuz eta gure hiriaren tokiko garapena bultzatuz.

Oinarriak bat datoz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren printzipioekin. Horrenbestez, administrazio publikoek bete behar duten premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioen arabera jarduteko obligazioa errespetatzen da.

Oinarri hauen beharrezkotasuna beraz, Azkoitiko txikizkako establezimenduak eta ostalaritza bultzatzeko bonu-sistemaren prozedura arauak zehaztean datza, ahalik eta eraginkortasun handiena duen eta errealitatera egokitzen den prozedura arin bat ezarriz. Araua bat dator proportzionaltasun printzipioarekin, funtzionamendu egokirako beharrezko erregulazioa dakarrelako.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko,

que las calles sean más transitadas. Contribuyen a revitalizar los barrios, impidiendo que existan zonas desiertas y muchas veces, además, funcionan como lugares de encuentro, por lo que los beneficios sociales van más allá de los puramente económicos, vitaliza los entornos urbanos, incrementando la cohesión social, contribuyendo a la generación de empleo y al desarrollo local de nuestra ciudad.

Las bases se adecuan a los principios de buena regulación previstos en el artículo 129.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, cumpliendo con ello la obligación de las Administraciones Públicas de actuar de acuerdo con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia.

Así, las bases son necesarias pues permiten establecer los cauces procedimentales a través de los cuales ha de efectuarse el sistema de bonos que promueven el comercio en establecimiento minoristas y la hostelería. La eficacia queda garantizada a través del establecimiento de un procedimiento ágil que se ajusta a la realidad. La norma es acorde con el principio de proporcionalidad, al contener la regulación imprescindible para su correcto funcionamiento.

Para garantizar el principio de seguridad jurídica, el Reglamento se integra en un marco normativo estable y coherente, resultando su contenido acorde con la regulación de la Ley 38/2003, de 17



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

araudia arau-esparru egonkor eta koherente batean sartzen da, eta horren edukia bat dator 38/2003 azaroaren 17ko Diru-laguntzen Lege Orokorrekin.

Horregatik guztiagatik, Ordenantza honen legezkotasuna Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta 38/2003 azaroaren 17ko Diru-laguntzen Lege Orokorrean dago.

Era berean, oinarrietan jasotako erregulazioak eraginkortasun-printzipioa gauzatzen laguntzen du, prozedura eraginkorragoa bihurtuz; izan ere, merkataritza eta ostalarientzat prozedura berbera izango da beti eta ondorioz, eraginkorragoa.

Hau egiterakoan, 4/2005 otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Legeak aipatutako printzipio orokorrak hartu dira kontuan: Tratu berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasuna eta ezberdintasunaren errespetua, genero-ikuspegiaren integrazioa eta ekintza positiboa.

### **1. artikulua. Helburua.**

Oinarri hauen helburua Azkoitiko hiri ingurunean Azkoitiko txikizkako establezimenduetan aurrez aurreko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak indartzeko merkataritza bonuak arautzea da.

### **2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak eta aplikazio eremua.**

de noviembre, General de Subvenciones.

Por todo ello, las presentes bases tienen su fundamento legal en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, y la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Igualmente, la regulación contenida en la norma contribuye a hacer efectivo el principio de eficiencia realizando un uso más eficaz del procedimiento, ya que, para los comerciantes y hosteleros será siempre el mismo procedimiento, y resultará más eficiente.

En su elaboración se han tenido en cuenta los principios generales mencionados en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres: igualdad de trato, igualdad de oportunidades, respeto a la diversidad y a la diferencia, integración de la perspectiva de género y Acción positiva

### **Artículo 1. Objeto.**

El objeto de estas bases es regular el programa de Bonos de comercio de Azkoitia que pretende fortalecer el canal de consumo presencial del comercio, la hostelería y los prestadores de servicios, situados en el entorno urbano de Azkoitia.

### **Artículo 2. Actividad subvencionable y ámbito de**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1. Azkoitiko merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan norberarentzat eta familiarentzat ondasunak erosi eta kontsumitzeko edo zerbitzuak jasotzeko herritarren artean banatuko dira bonuak.

2. Deialdi bakoitzean zehaztuko da bonu bakoitzaren zenbatekoa, balioa eta trukatzeko prozedura. Diruz lagunduko den zenbatekoa gehienez ere %50ekoa izango da. Parte hartuko duen saltoki bakoitzean kartel bat jarriko da, bezeroak establezimendu bakoitzean ze txartel erabili dezakeen jakiteko.

3. Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko.

4. Bonuak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa.

5. Deialdi bakoitzean zehaztuko da bonuen baliozkotasun epea.

6. Parte hartu ahalko dute diruz lagundu daitekeen jardueraren esparruan sartzen diren Azkoitiko txikizkako merkataritzako eta ostalaritzako establezimendu guztiak.

### 3. artikulua. Laguntzen izaera.

Programa honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.

### aplicación.

1. La compra de bienes y el consumo personal y familiar o la prestación de los servicios en establecimientos comerciales minoristas y hosteleros del municipio de Azkoitia, a través de bonos que se repartirán entre la población.

2. En cada convocatoria se determinará el valor de cada bono, su validez y el procedimiento para canjearla. La cuantía subvencionable a lo máximo será del 50%. En cada establecimiento que participe en la campaña se colgará un cartel para que el cliente pueda identificar qué tarjeta puede usar en él dependiendo del sector.

3. Si el importe de la compra fuera inferior al importe del bono, la diferencia no será devuelta en metálico.

4. Los bonos no podrán ser canjeados en metálico ni devueltos en ningún caso.

5. En cada convocatoria se concretará la fecha de validez de los bonos.

6. Podrán participar todos los establecimientos de comercio minorista y hostelería de Azkoitia que se encuentren en el ámbito de la actividad subvencionable.

### Artículo 3. Naturaleza de las ayudas.

Las ayudas que se concedan en el marco del presente programa tendrán la consideración de subvenciones a fondo perdido no reintegrables.



#### 4. artikulua. Laguntzak kudeatzeko organoa.

Merkataritza arloari dagokio aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

#### 5. artikulua. Onuradunak

Onuradunak programan parte hartzen duten Azkoitiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduak izango dira.

#### 6. artikulua. Parte hartzeko baldintzak

1. Merkataritza bonuen programan parte hartzeko aukera izango dute bonuak hartu eta ordainketa modu gisa onartzen dituzten Azkoitiko establezimenduek. Hauek pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke, baina ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a. Jardueraren helburu nagusia kontsumitzaileari kontsumo produktuak, ondasunak eta zerbitzuak zuzenean saltzea edo ematea izatea.

- b. Zerga betebeharretan, bai Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin eguneratuak egotea eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharretan.

jakinarazten da Azkoitiko Udalak egiaztatuko dituela datu

#### Artículo 4. Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá al área de Comercio la realización de las tareas de gestión de las ayudas.

#### Artículo 5. Establecimientos beneficiarios.

Se considerarán beneficiarios aquellos comercios, establecimientos hosteleros o de servicios de Azkoitia que se adhieran al programa.

#### Artículo 6. Condiciones de adhesión.

1. Podrán adherirse al programa de Bonos de comercio aceptando comercializar y recibir el mismo como medio de pago, aquellos establecimientos del municipio de Azkoitia que, con independencia de que sean personas físicas o jurídicas, cumplan los siguientes requisitos:

- a. Tener como objeto preferente de su actividad el de la venta o prestación directa al o la consumidor/a de productos, bienes de consumo y servicios.

- b. Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social y Hacienda y, en su caso, de las obligaciones de reintegro de subvenciones.

Se informa, que el Ayuntamiento de Azkoitia va a verificar estos requisitos, desde los servicios de la



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik baldintza hauek. Eskatzaileek egiaztapen horren aurka egiteko aukera izango dute; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Datu-bitartekaritzako plataformaren bidez eskatuko diren zerbitzuak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia:

Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala:

Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean izateari buruzko kontsulta.

c. Azkoitiko Udalarekin zorrik ez izatea.

2. Azkoitiko Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du gutxieneko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko edozein agiri.

Horiek betetzen ez dituzten entitateek aurkeztutako eskaerak ez dira kontuan hartuko eta ez dira onartuko.

plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. Los solicitantes tendrán la opción de oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberán presentar la documentación pertinente.

Servicios que se solicitarán mediante la plataforma de intermediación de datos:

- Diputación Foral de Gipuzkoa:

Consulta de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

- Instituto Nacional de la Seguridad Social:

Consulta de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones de la Seguridad Social.

c. No tener deudas en el Ayuntamiento de Azkoitia.

2. El Ayuntamiento de Azkoitia podrá solicitar en cualquier momento cualquier documento acreditativo del cumplimiento de tales requisitos mínimos.

No se tendrán en cuenta ni admitirán las



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**7. artikulua. Parte hartzeko prozedura.**

Deialdi bakoitzean zehaztuko da merkataritza bonuen programan parte hartu nahi duten saltoki eta ostalariek, eskaera, ze epetan aurkeztu dezaketen.

Interesa izan dezaketen pertsonak parte hartzeko eskaera orria Azkoitiko Udaleko webgunean egongo da [www.azkoitia.eus](http://www.azkoitia.eus)

Eskaera orria aurkeztean, parte hartzen duten establezimenduei, beharrezko dokumentazioa eta jarraibideak emango zaizkie.

**8. Parte hartuko duten saltokien betebeharrak.**

Merkataritza bonuen programan parte hartzeko eskaera orria aurkeztu duten saltokien betebeharrak hauek izango dira:

- a. Atxikitako establezimenduak konpromisoa hartzen du publizitateko materialak saltokian jaso eta ikusteko moduan jartzeko.
- b. Atxikitako establezimenduak eskuratzailen nortasuna kontrolatzeko konpromisoa hartzen du.

solicitudes presentadas por entidades que no cumplan con los mismos.

**Artículo 7. Proceso de adhesión.**

En cada convocatoria se concretará el plazo para que los establecimientos comerciales y hosteleros puedan adherirse a los bonos de comercio.

El formulario de adhesión estará a disposición de las personas interesadas en la página web del Ayuntamiento de Azkoitia [www.azkoitia.eus](http://www.azkoitia.eus)

En el momento de presentar del documento de adhesión, a los establecimientos adheridos se les facilitará la documentación e instrucciones necesarias.

**Artículo 8. Obligaciones del establecimiento adherido.**

El establecimiento adherido al programa de los bonos de comercio, a través de la suscripción de la solicitud de adhesión, adquirirá las siguientes obligaciones:

- a. El establecimiento adherido se compromete a la recepción y colocación de los materiales publicitarios en un lugar visible del establecimiento.
- b. El establecimiento adherido se compromete a realizar el control de la



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

c. Hobariz emandako zenbatekoa itzultzea eskatzeko, establezimenduak salmentaren frogagiriak harrera bulegoan utzi beharko ditu; hau da, eskari orria behar bezala beteta eta merkataritza bonua.

d. Merkataritza bonuen erabiltzaileei ez zaie itzuliko erosketaren eta bonuaren balioaren arteko diferentzia.

e. Parte hartutako establezimenduekin harremanetan jarri ahal izango da, funtzionamendua egiaztatzeko eta oro har prozesuaren eta kanpainaren inguruan zer iritzi duten egiaztatzeko.

**9. artikulua. Merkataritza bonuen banaketa.**

1. Erosketa bonuak online edo presentzialki erosi ahal izango dira:

a) Online: Deialdi bakoitzean zehaztuko da web orria, epea eta salgai jarriko diren bonu kopurua. Erosketa egiterakoan NAN zenbakia eta helbidea eskatuko dira. Bonua onuradunaren etxera bidaliko da posta ziurtatu bidez.

identidad de las personas adquirentes.

c. Para solicitar el reembolso del importe bonificado, el establecimiento deberá depositar la documentación acreditativa de la venta (la solicitud y el bono de comercio) en la oficina de atención al ciudadano.

d. No se devolverá a las personas usuarias de los bonos dinero en metálico sobre la diferencia entre la compra y el valor del bono.

e. Los establecimientos adheridos podrán ser contactados para verificar el funcionamiento y su opinión sobre el proceso y la campaña en general.

**Artículo 9. Distribución de los bonos de Comercio.**

1. Los bonos de compra se podrán adquirir online o de forma presencial:

a) Online: En cada convocatoria se determinarán las webs, se concretará la fecha y la cantidad de bonos que se pondrán a la venta. A la hora de realizar la compra se solicitará el número de DNI y una dirección física. El usuario/a que adquiera el bono por internet, lo recibirá en su domicilio por correo





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

b) Presentzialki: Deialdi bakoitzean zehaztuko da lekua, epea, ordutegia eta salgai jarriko diren bonu kopurua. NAN zenbakia eskatuko da.

2. Merkataritza bonuak Azkoitian erroldatuta dauden 18 urtetik gorako pertsonak izango dituzte eskuragarri.
3. Bonuak modu arduratsuan erosi eta erabili beharko dira, eta kontuan hartu beharko da bonurik edo ordaindutako zenbatekorik ez dela itzuliko berauek galdu, ahaztu edo ezjakintasunagatik sortu daitezken bestelako egoerengatik.

**10. artikulua. Dirulaguntzen indarraldia eta egutegia.**

1. Merkataritza bonuak, ordainketa modu gisa, Azkoitiko udalerrian bakarrik erabiliko dira.
2. Merkataritza bonuen indarraldia deialdi bakoitzean zehaztuko da eta behin epea pasa ondoren ez dute baliorik izango.
3. Kasu guztietan, epe horiek aldatu ahal izango dira, antolaketa inguruabarrek edo bestelako arrazoiek hala gomendatzen badute.

**11. artikulua. Programan parte hartu duten saltokietan jaso dituzten merkataritza bonuak**

certificado.

b) Presencialmente: En cada convocatoria se concretará el lugar, la fecha, hora y la cantidad de bonos que se pondrán a la venta. A la hora de realizar la compra se solicitará el número de DNI.

2. Los bonos de comercio estarán a disposición de personas físicas mayores de 18 años y empadronados en Azkoitia.
3. La compra y utilización de los bonos deberá realizarse de forma responsable, teniendo en cuenta que ningún bono o importe del mismo será devuelto por otras circunstancias que puedan derivarse de su pérdida, olvido o desconocimiento.

**Artículo 10. Vigencia de las ayudas y calendario.**

1. Los bonos de comercio como medio de pago se limitarán en exclusiva al municipio de Azkoitia.
2. Los bonos podrán utilizarse exclusivamente en la fecha que se indique en cada convocatoria, fuera de plazo no tendrán ningún valor económico.
3. En todos los casos, estas fechas podrán modificarse si las circunstancias u otras razones organizativas así lo aconsejan.

**Artículo 11. Procedimiento de canje de los bonos recibidos por los comercios adheridos al**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**trukatzeko prozedura.**

Trukea egiteko, jasotako merkataritza bonuak eta eskaera orria eraman beharko dira harrera bulegora. Trukea astean behin egingo da. Hobariaren xede den zenbatekoa dokumentazioa egiaztatu ondoren ordainduko da, jaso eta gehienez ere hilabeteko epean eta banku transferentzia bidez.

**12. artikulua. Ikuskatzea eta ez-betetzeak.**

Azkoitiko Udalak egokitzat jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu.

Saltoki atxikiek ez-betetzereen bat eginez gero, Azkoitiko Udalak merkataritza bonuen programara duten atxikipena bertan behera utzi dezake, aplikagarria izango delarik Diru Laguntzak arautzen dituen Udal ordenantzaren (2020ko irailaren 8an GAOn 171 argitaratua) X. tituluan aurreikusitakoa.

Atxikitako establezimenduak behartuta daude Azkoitiko Udalak laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eskatzen dien informazio guztia ematera.

**13. artikulua. Datu Pertsonalen Babesa**

Datuak babesteko indarreko araudian ezartzen

**programa.**

El canje deberá efectuarse mediante la entrega de los bonos recibidos junto con la solicitud en la oficina de atención al ciudadano. Este canje podrá ser efectuado una vez por semana. El importe objeto de bonificación será ingresado una vez realizada la comprobación de la documentación, en el plazo máximo de un mes desde su recepción y mediante transferencia bancaria.

**Artículo 12. Inspección e incumplimientos.**

El Ayuntamiento de Azkoitia, se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas.

En el supuesto de que se operase algún incumplimiento por parte de los establecimientos adheridos, el Ayuntamiento de Azkoitia, podrá cancelar la adhesión de los mismos al programa de bonos de comercio de Azkoitia siendo de aplicación lo previsto en el Título X de la Ordenanza municipal de subvenciones publicada el 8 de septiembre de 2020 BOG 171.

Los establecimientos adheridos se obligan a facilitar cuanta información sea requerida por el Ayuntamiento de Azkoitia en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

**Artículo 13. Protección de Datos de Carácter Personal**

Según lo establecido en la vigente normativa de



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

denaren arabera, helarazten dizkiguten datu pertsonalak Azkoitiko Udalak tratamenduaren arduradun modura tratatuko dituela jakinarazten da.

Tratamenduaren helburua Azkoitiko merkataritza bonuen partaidetza izapidetu eta kudeatzea da.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria DBEO erregelamenduko 6.1.b) artikulua da, tratamendua ezinbestekoa da interesduna aldeetako bat duen kontratu bat egikaritzeko (oinarri arautzaileen onarpena), DBEO erregelamenduko 6.1.e) artikulua: tratamendua ezinbestekoa da interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahal publikoak gauzatzean burututako misioa betetze aldera: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

Ez da aurreikusten datuak hirugarrenei modu gehigarrian komunikatzea, legezko betebeharra salbuetsita, eta datuen nazioarteko transferentziak ere ez dauden aurreikusita.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak gorde egingo dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen balizko erantzukizunak erabakitzeko eta datuak tratatu ahal izateko behar den denboraz. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

Eragindako pertsonak datuak hartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak erabil ditzakete, eta baita

protección de datos, se informa que los datos personales que nos faciliten serán tratados por el Ayuntamiento de Azkoitia, que actuará como responsable del Tratamiento.

La finalidad del tratamiento es tramitar y gestionar su participación en los bonos de comercio de Azkoitia.

La base de licitud del tratamiento es el artículo 6.1.b) del RGPD, el tratamiento es necesario para la ejecución de un contrato en el que el interesado es parte (aceptación de las bases reguladoras), el artículo 6.1.e) del RGPD: el tratamiento es necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento: Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local y Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. y la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

No están previstas comunicaciones adicionales de datos a terceros salvo obligación legal, ni están previstas transferencias internacionales de datos.

Los datos personales objeto del presente tratamiento se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y para determinar las posibles responsabilidades que se pudieran derivar de dicha finalidad y del tratamiento de datos. Será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.

Las personas afectadas podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión, así como otros contemplados en la vigente normativa de protección de datos, cuando procedan, a través del delegado de Protección de datos mandando un



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

datuak babesteko indarreko araudian jasotzen diren bestelako eskubideak ere, hala dagokionean, datuak babesteko ordezkariari email bat bidaliz [dbo@azkoitia.eus](mailto:dbo@azkoitia.eus). Azkoitiko Udalaren datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago izateko, <https://azkoitia.eus/lege-oharrak> kontsultatu.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Oinarri hauetan ezarri gabeko guztiari dagokionez, xedapen hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Diru Laguntzak arautzen dituen udal ordenantza 2020ko irailaren 8an GAOn 171 argitaratua.

email a [dbo@azkoitia.eus](mailto:dbo@azkoitia.eus). Para más información sobre el tratamiento de datos del Ayuntamiento de Azkoitia, consulte <https://azkoitia.eus/es/aviso-legal>.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

En todo lo no previsto en estas bases se estará a lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y la ordenanza municipal de subvenciones publicado el 8 de septiembre de 2020 BOG 171.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU7d2ea0c9-c03d-49e5-a394-563153e7541e**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>